



PARTEKATZEKO MENUA... ABENDUA

Gabonetan, mahaiaren inguruan elkartzen dira familiak, ospatzeko. Beraz, garrantzitsua iruditzen zaigu kontsumitzen dugun moduari buruz gogoeta egitea eta gogoan izatea munduan jende asko dagoela behar bezala elikatzeko aukerarik gabe.

Munduan dagoen goseak zerikusi handia dauka justizia eta senidetasun handiagoak izateko beharrarekin, baina horrek konpromiso handiagoa eskatzen digu guztioi. Horretarako, balio batzuk lantzea proposatzen dizuegu, horietan oinarrituz jarrerak eta sentimenduak aldatzeko bidea egin daitekeelako, besteek dauzkaten arazoak konpontzeko ahalegin handiagoa egin dezagun.

Kasu hauetan egin dezakegun ekarpenik handiena balio zehatz batzuetan oinarritutako jarrera hartzea da.

Menuan hainbat balio sartu ditugu, gogoeta egiten bultzatzeko eta gure bizimoduan aldaketak egiteko abiapuntu izateko.

Menuak, gainera, beste bi ekintza garrantzitsu biltzen ditu: ekoizpen jasagarria bultzatzea eta ekoiztutakoa partekatzea, ahalik eta jende gehien elikatu ahal izateko. Horren bidez, irailean nahiz azaroan landutako justiziaren gaiari ere helduko diogu.

- Jarri ikasleak taldeka, eta proiektatu Gabonetako menua. Talde bakoitzak menuan agertzen den balioetako baten esanahia aurkitu beharko du: altruismoa, konpromisoa, eskua luzatzea, enpatia, senidetasuna, eskuzabaltasuna, ilusioa, interesa (besteekiko) eta elkartasuna.
- Garrantzitsua da balioek benetan duten esanahian sakontzea. Adibidez:
 - «Eskuzabala izatea ez da soberan daukaguna edo gustatzen ez zaiguna ematea; eskuzabala izatea besteengan pentsatzea eta daukaguna haiekin partekatzea da».
 - «Elkartasuna ez da une jakin batzuetan modu zehatz batean jokatzera mugatu behar; elkartasuna beste pertsonetikiko daukagun harremanak bideratzeko modu bat izan behar da».
- Taldeek ulertu egin behar dute egokitu zaien balioa, eta gainerakoei azaldu beharko diete. Hainbat modutara egin dezakete hori, segun eta zein ikasgaitan landu nahi duzuen. Guk bi modu hauek proposatzen dizkizuegu:
 - Idatzi testu labur bat, balioetako bakoitzarekin lotutako egoera bat azaltzen duena. Elkarrizketa modura egin dezakezue, baita antzerki txiki bat eginez ere, zuzenean beste ikasleen aurrean edota bideo bat grabatuz.
 - Marratzu irudi batean edo batzuetan balioetako batekin lotutako irudi bat.
- Gero, talde bakoitzak testua irakurri, antzerkia egin edota irudia erakutsi ondoren, gainerakoek azal dezatela zer ikusi duten, eta ea asmatzen duten zein balio dagoen horren atzean.
- Jarduera bukatutakoan, eskatu ikasleei balio horietako bakoitza ikastetxean praktikan jartzeko moduko eguneroko egoerak bilatzeko, denen artean. Aukeratu gauzagarrienak diruditenak, eta aste bakoitzean balio horietako baten aldeko konpromisoa har dezatela ikasleek, pixkanaka praktikan jartzeko bidea har dezaten.